


Merkatuko zerbitzuak positiboan 2016ko amaieran

2016an Merkataritza salmentak %3,3 erreal gehitu eta Merkatuko beste zerbitzuenak %1,8

Merkataritza (handizkakoa, txikizkakoa, ibilgailuen salmenta eta konponketa), %0,9 gehitu zen 2016ko laugarren hiruhilekoan; Gainerako zerbitzuak %0,7; aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, termino finkoetan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, %-0,5 Merkataritzan; %-0,1 Gainerako zerbitzuetan; urtaro-eraginak kenduta, prezio finkoetan.

Euskal AEko merkatariatzako koiuntura-indizearen eta beste zerbitzuen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)
Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Merkataritzan urte artekoa positiboa izan da Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketan %6,7, eta Handizkako merkataritzan %1,2. Txikizkakoan, %-0,1.

Gainerako zerbitzuetan, termino finkoetan: Jarduera administratibo eta laguntza-zerbitzuen salmenta indizea %4,5 gehitu; Ostalaritzarena %3,1; Informazio eta komunikazioena %1,6; Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoena %0,7. Garraio eta biltegiatzea %2,7 jaitsi.

Arabian Merkataritza %0,2 jaitsi eta Gainerako zerbitzuak %0,8 gehitu; Bizkaian %1,1 gehitu bietan. Gipuzkoan %1,0 eta %0,1; 2015eko laugarren hiruhilekoaren aldean eta prezioen eraginik gabe.

Euskal AEn, langile okupatuak %0,6 gehitu Merkataritzan eta %1,6 Gainerako zerbitzuetan, urte artean.

1. taula. Euskal AEko zerbitzuen koiantura-indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa (p). IV/2016

	PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1
Merkataritza	0,9	-0,5
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	6,7	3,5
Handizkako merkataritza	1,2	-0,1
Txikizkako merkataritza	-0,1	-1,0
Bestelako zerbitzuak	0,7	-0,1
Garraioa eta biltegiatzea	-2,7	-0,2
Ostalaritza	3,1	0,2
Informazioa eta komunikazioak	1,6	0,5
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	0,7	-1,4
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	4,5	1,7
Araba/Álava		
Merkataritza	-0,2	-1,2
Bestelako zerbitzuak	0,8	-0,8
Bizkaia		
Merkataritza	1,1	0,3
Bestelako zerbitzuak	1,1	0,5
Gipuzkoa		
Merkataritza	1,0	-1,2
Bestelako zerbitzuak	0,1	-0,8
ENPLEGU INDIZEA		
Euskal AE		
Merkataritza	0,6	0,3
Bestelako zerbitzuak	1,6	0,4

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiantura-indizea

2016ko balantzea

Urte osoan, Merkataritzaren salmentek %3,3ko igoera erreal metatua izan dute; Gainerako zerbitzuenek %1,8.

Arabian Merkataritzan %2,9ko gehikuntza, Gainerako zerbitzuek %2,0. Bizkaian %3,2 eta %2,1. Gipuzkoan %3,8 eta %1,2. Dena prezio finkoetan.

Merkataritzako sektorean enpleguak %0,8 gehitu ziren 2016an aurreko urteko batez bestekoaren aldean. Gainerako zerbitzuetan %2,1.

1. taula. Euskal AEko zerbitzuen koiantura-indizea. Urte arteko aldakuntza-tasa

	PREZIO FINKOAK		
	2016	2015	Δ%
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE			
Merkataritza	93,4	90,4	3,3
Bestelako zerbitzuak	88,3	86,7	1,8
Araba/Álava			
Merkataritza	97,1	94,4	2,9
Bestelako zerbitzuak	84,7	83,0	2,0
Bizkaia			
Merkataritza	90,6	87,8	3,2
Bestelako zerbitzuak	86,0	84,2	2,1
Gipuzkoa			
Merkataritza	96,4	92,9	3,8
Bestelako zerbitzuak	94,5	93,4	1,2
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE			
Merkataritza	91,7	90,9	0,8
Bestelako zerbitzuak	89,5	87,6	2,1

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiantura-indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Zerbitzuen koiantura-indizea (ZKI), Prentsa-oharrak Interneten

Euskal AEko Zerbitzuen koiantura-indizea (ZKI). Datu-bankua